




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

# GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA PEDAGOGIAKO GRADUA



## III. MODULUA: HEZKUNTZA PROZESUEN OINARRIAK


Donostia - San Sebastián

## AURKIBIDEA

1. III. MODULUA ETA DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN).....	3
2. III. MODULUKO KONPETENTZIAK ETA IKAS-EMAITZAK .....	4
3. III. MODULUKO IRAKASGAIEEN GIDAK .....	6
4. III. MODULUKO DILANAREN GIDOIA ETA KRONOGRAMA .....	7
5. III. MODULUKO DILANAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK .....	10
6. ERANSKINA: III. MODULUKO DILANAREN TALDE-FITXA .....	13

### 1. III. MODULUA ETA DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

Ikasleek, Gizarte Hezkuntzako Gradua titulazioaren eta Pedagogiako Gradua titulazioaren bigarren mailako lehen lauhilekoan, taldeko eta diziplinarteko lan bat egin behar dute "III. Modulua: Hezkuntza Prozesuen Oinarriak" izeneko moduluko bost irakasgaietan ikusitako eduki teoriko-praktikoa erlazionatuz eta aplikatuz. Taldeko eta diziplinarteko lan horri Diziplinarteko Lana (DILAN) esaten zaio.



III. Moduluko DILANa bat dator UPV/EHUren IKD i3 (ikaskuntza x ikerketa x iraunkortasuna) hezkuntza ereduarekin, zeharkako gaitasunen katalogoarekin, eta EHUagenda 2030eko Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH): 3. Osasuna eta ongizatea; 4. Kalitatezko hezkuntza; 5. Genero berdintasuna; 10. Desberdintasunak murriztea; 16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak; eta, 18 edo 17+1. Hizkuntza eta kultura aniztasuna.



Gida hau III. Moduluko irakasgaietako irakasleek adostu dute eta eguneratu da "Moduluak Hezkuntzan i3" izeneko Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuaren (HBP) bidez. Proiektua UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE-HELAZ) diruz lagundu du 2022-2023 aldirako (i3kd22-45) eta hiru Campusetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) Hezkuntza Fakultateek, batez ere moduluko eta minorreko koordinatzaileek, parte hartzen dute.



## 2. III. MODULUKO KONPETENTZIAK ETA IKAS-EMAITZAK

Gizarte Hezkuntzako Gradu titulazioaren (<https://labur.eus/O4zl7>) eta Pedagogiako Gradu titulazioaren (<https://labur.eus/1dpK1>) memoria egiaztatuarekin bat etorritik, III. Moduluan jarraian zehazten diren konpetentziak (K), espezifikoak (E) zein zeharkakoak (Z), eta ikas-emaitzak (IE) garatzen dira:

- **K1E.** Hezkuntza prozesuetan diharduten eta jarduten duten pertsonak, taldeak, testuinguruak eta hezkuntza erakundeak aztertzea, ezagutza teorikoaren esparruan interpretatuak izateko.
  - **IE1.** Irakasteko eta ikasteko prozesuen osagai didaktikoak identifikatzea.
- **K2E.** Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak aztertzea testuinguru formaletan eta ez formaletan, ikuspegi inklusiboak eta desberdintasunak gainditzekoak erabilia.
  - **IE2.1.** Gizarte eta hezkuntza prozesuetan inklusibitate irizpideekin jardutea.
  - **IE2.2.** Gizarte eta hezkuntza prozesuetan genero dimentsioarekin jardutea.
- **K3E.** Hezkuntza eta gizarte orientazioko prozesuen suposizio teoriko-praktikoak eta oinarriko dimentsioak deskribatzea.
  - **IE3.** Hezkuntza eta gizarte orientazioko prozesuaren osagaiak identifikatzea.
- **K4E.** Gizarte eta hezkuntza prozesuen oinarri psikologikoak eta psikopedagogikoak zehaztea.
  - **IE4.** Gizarte eta hezkuntza prozesuetan eragina duten aldagai psikologikoen sintesia egitea.
- **K5E.** Hezkuntza erakundeen egitura eta dinamika interpretatzea eta hezkuntza prozesuetan duten eragina giza garapenaren ikuspegitik.
  - **IE5.** Gizarte eta hezkuntza prozesuak eraikitzen eta kudeatzen laguntzen duten antolamendu alderdiak zehaztea.
- **K6Z.** Gizarte eta hezkuntza gaiet buruzko ideiak, argumentu osagarriak eta abar jendaurrean ahoz komunikatzea.
  - **IE6.** DILAN jendaurrean ahoz aurkeztea, taldearen barruan eta entzuleen aurrean jarrera egokiak mantenduz.
- **K7Z.** Txosten idatziak egitea, ezarritako irizpide formalak errespetatuz.
  - **IE7.** Hezkuntza prozesu jakin baten azterketa egitea, alderdi didaktikoak, psikologikoak, antolakuntzakoak, soziologikoak eta orientaziokoak kontuan hartuta.
- **K8Z.** Banakako zein taldeko ikaskuntza jarduerak eta zereginak egiteko jarrera positiboa erakustea.
  - **IE6.** DILAN jendaurrean ahoz aurkeztea, taldearen barruan eta entzuleen aurrean jarrera egokiak mantenduz.
  - **IE7.** Hezkuntza prozesu jakin baten azterketa egitea, alderdi didaktikoak, psikologikoak, antolakuntzakoak, soziologikoak eta orientaziokoak kontuan hartuta.

Era berean, EDINSOST Proiektuko hezkuntza titulazioetarako jasangarritasunerako gaitasunen maparen arabera (<https://labur.eus/3DspF>), III. Moduluan jarraian zehazten diren gaitasunak (SOST) eta ikas-emaitzak edo konpetentzi holistikoa menderatzeko mailak (HO.1. JAKIN; HO.2. NOLA JAKIN; eta, HO.3. FROGATU + EGIN) garatzen dira:

- **SOST 1** – Ezagutzaren testuinguru kritikoa, gizarte, ekonomia eta ingurumen arazoekiko, tokiko arazoekiko eta/edo arazo globalekiko loturak ezarriz.
  - **K1.HO.1.2.** Tokiko nahiz mundu osoko gizarte, ekonomia eta/edo ingurumen arazoetan inplikaturako kausa, ondorio eta subjektu nagusiak ezagutzen ditu.
  - **K1.HO.2.1.** Iraunkortasunaren dimentsioei buruzko gogoeta kritikoa egiten du bere lanbide eremuarekin lotutako egoera baten azterketan.
  
- **SOST 2** – Baliabideen erabilera iraunkorra eta natura eta gizarte ingurunearen gaineko inpaktu negatiboen prebentzioa.
  - **K2.HO.1.1.** Oinarrizko ezagutzak ditu hezkuntza jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzeko.
  - **K2.HO.1.5.** Bere lanbide eremuko proiektuetan justizia soziala baloratzeko irizpideak ezagutzen ditu (adibidez: ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).
  - **K2.HO.2.1.** Badaki kritikoki baloratzen hezkuntza jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eragin negatiboak.
  - **K2.HO.3.3.** Gai da bere lanbide eremuko proiektu batean ideia eta irtenbide berriak emateko, jasangarriagoa izan dadin.
  
- **SOST 4** – Iraunkortasunaren balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea portaera pertsonaletan eta profesionaletan.
  - **K4.HO.1.1.** Bere lanbide eremuan iraunkortasunarekin zerikusia duten arazo etikoak ezagutzen ditu (adibidez: desberdintasuna, kontsumismoa, diskriminazioa, etab.).
  - **K4.HO.2.1.** Gai da iraunkortasunaren printzipio etikoek bere esparru profesionalean dituzten inplikazioak identifikatzeko eta kritikoki baloratzeko.

Aurrerago, gida honetako 12. orrialdean, konpetentzi eta ikas-emaitza hauek guztiek ebaluazio-irizpideekin eta adierazleekin duten lotura zehazten da laburpen taula batean.

### 3. III. MODULUKO IRAKASGAIEEN GIDAK

Jarraian, irakasgai bakoitzak III. Moduluko DILANarekin duen erlazioa labur-labur deskribatzen da, eta irakasgai bakoitzaren gidarako esteka eransten da (gidak ere irakasgai bakoitzaren eGelan eskuragarri daude).

#### Didaktika Orokorra

**Didaktika Orokorra** irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen zein gizarte eta hezkuntza proiektu eta/edo esku-hartzeen azpian dagoen curriculum (helburuak, baliabideak, plangintza, inplementazioa, ebaluazioa eta berrikuntza). Irakasgaiaren gida osoa hemen dago eskuragarri: <https://labur.eus/qTZr3>

**Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak** irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte: eraldaketa ekonomikoa (berregituraketa ekonomikoa eta globalizazioa) eta Ongizate Estatua; hau da, desberdintasunarekin, pobreziarekin, marjinazioarekin, generoarekin, eta abarrekin lotutako inklusio eta baztertze prozesuak, bai eta estrategia politikoak eta soziohezitzaileak ere baztertutako kolektiboak gizarteratzeko eta/edo bazterketa arriskuan dauden kolektiboak prebenitzeko FOESSA adierazleen arabera. Irakasgaiaren gida osoa hemen dago eskuragarri: <https://labur.eus/W2vue>

#### Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak

#### Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa

**Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa** irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte: gizarte eta hezkuntza orientaziorako tresnak (elkarrizketa, behaketa...); gizarte eta hezkuntza orientazioaren gaitasunak, funtzioak eta rolak (autoestimua, gaitasun sozioemotionalak...); gatazkak eta jazarpenak kudeatzeko jarraibideak eta estrategiak; gizarte eta hezkuntza orientaziorako prebentzio eta esku-hartze programak; etab. Irakasgaiaren gida osoa hemen dago eskuragarri: <https://labur.eus/LeU1p>

**Hezkuntzaren Psikologia** irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte irakasteko eta ikasteko prozesuen oinarri diren ereduak (konduktismoa, kognitibismoa, konstruktibismoa...), bai eta pertsona barruko faktoreak (irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak, adimen anitzak eta emozionala, motibazioa...) eta pertsonen artekoak ere (bizikidetzak, hezkidetzak...), horietan zein gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeetan eragiten dutenak. Irakasgaiaren gida osoa hemen dago eskuragarri: <https://labur.eus/cuMB8>

#### Hezkuntzaren Psikologia

#### Prozesuen, Zerbitzuen eta Hezkuntza Erakundeen Antolakuntza eta Kudeaketa

**Prozesuen, Zerbitzuen eta Hezkuntza Erakundeen Antolakuntza eta Kudeaketa** irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte gizarte eta hezkuntzako erakundeen eta zerbitzuen antolakuntzaren egitura (funtzioak, proiektuak, planak...) zein kudeaketaren dinamika (lidergoa, giroa...). Irakasgaiaren gida osoa hemen dago eskuragarri: <https://labur.eus/vtS4i>

Azken batean, diziplinarteko identifikazio eta azterketa honen azken helburua da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen zein gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeen diseinuetaz, egokitzapenetaz eta hobekuntzetaz gogeta sustatzea.

## 4. III. MODULUKO DILANAREN GIDOIA ETA KRONOGRAMA

Atal honetan, III. Moduluko DILANaren gidoia eta kronograma zehazten dira.

III. Moduluko DILANak, gutxi-gorabehera, 20-25 orrialde izango ditu eta honako atal hauek izan beharko ditu (orientabide gisa, orrialde kopurua eta edukia ere zehazten dira):

- **Azala:** HEFA Fakultatearen logoa, moduluaren izena, aukeratutako filmaren izenburua, ikasturtea, taldearen izena eta taldekideen izen-abizenak jasotzen dituen orrialdea, orrialde 1.
- **Aurkibidea:** DILANaren atal nagusietako orrialdeen zenbakiak jasotzen dituen orrialdea, orrialde 1.
- **Sarrera:** III. Moduluko DILANaren xedea, hautatutako filma, hautaketaren arrazoiak eta idatzizko lanaren egituraketa jasotzen duen sarrerako azalpen labur bat, orrialde 1.
- **Testuinguraketa:** filma testuinguru soziohezitzaile jakin batean kokatzen duen testuinguraketa, 2 orrialde.
- **Filmaren analisia:** ikuspegi integratzaile eta diziplinartekotik, filmean identifikatutako III. Moduluko irakasgaien eduki teoriko-praktikoen analisiaren bilketa, 12 orrialde.
- **Ondorioak eta hobekuntza proposamenak:** filmaren analisiaren ondorio nagusiak zein diseinu, egokitzapen eta/edo hobekuntza proposamen posibleen jasoketa, 6 orrialde.
- **Erreferentzia bibliografikoak:** soilik DILANean aipatutako informazio iturrien erreferentzien bilketa, APA 7 estiloa betez, 2 orrialde.

Estiloaren eta formatuaren beste jarraibide batzuk:

- Marjinak 2,54 puntura (goikoa, behekoa, ezkerrekoa eta eskuinekoa).
- Orrialdeetan zenbakiak txertatu (beheko aldean, eskuinean).
- Letraren estilo lehenetsia (adibidez: Times New Roman eta/edo Calibri).
- Letraren tamaina 12 puntura eta justifikatuta.
- Lerroarte 1,15 puntura eta paragrafo bakoitzaren ostean tartea utzi.

Susmoa badago edo plagioa detektatzen bada, UPV/EHUren protokoloa aplikatuko da (<https://labur.eus/sLAcE>). Horrek 0 puntuko kalifikazioa ekarriko luke DILANaren azken bertsioan hautematen bada; beraz, gomendatzen da esteka honen jarraibideak jarraitzea hasieratik plagioa saihesteko eta zintzotasun akademikoa betetzeko: <https://labur.eus/uZjfo>

Era berean, oso garrantzitsua da irudiak, taulak eta erabilitako informazio iturriak behar bezala aipatzea eta erreferentziatzea. Horretarako, esteka hauetan agertzen diren APA estiloaren (7. edizioa) adibide zehatzak kontsultatzea gomendatzen da:

- <https://labur.eus/LnGiu>
- <https://labur.eus/FG358>

Halaber, gramatika edo ortografia akats posibleak berrikustea, eta hizkuntza inklusiboaren eta ez diskriminatzailearen erabilera babestea garrantzitsua da ere. Gida hemen eskura daiteke: <https://labur.eus/Sxj8Y>



III. Moduluko DILANaren kronograma 15 astetan banatzen da, ondorengo estekan kontsulta daitekeen ikasturteko egutegiarekin bat etorrira: <https://labur.eus/jZHxY>

ASTEA	KRONOGRAMA
1	DILANaren azalpena.
2	
3	DILANerako talde-fitxaren entrega.
4	DILANerako tutorearen esleipena.
5	DILANerako esleitutako tutorearekin lehenengo tutoretza egitea.
6	
7	
8	Etengabeko ebaluazioari uko egiteko idatziaren entrega (hala badagokio).
9	DILANaren zirriborro bertsioaren entrega (Word formatuan).
10	Tutorearen <i>feedback</i> a eta <i>feedforward</i> a DILANaren zirriborroarari buruz.
11	
12	
13	
14	DILANaren azken bertsioaren entrega (PDF formatuan).
15	DILANaren ahozko aurkezpena.

Ikasturteko **1. astean**, III. Moduluko koordinatzailea gelara sartuko da DILANa azaltzera eta horren inguruan egon daitezkeen zalantzak argitzera. III. Moduluko koordinatzailearen harremanetarako datuak eskuragarri daude "3M: DILAN / AIM" eGelan eta esteka honetan: <https://labur.eus/wvHMU>

Ikasleek bi aste izango dituzte (**3. asteko** ostiralera arte) lantaldeak eratzeko eta DILANean aztertu beharreko film bat hautatzeko. Horretarako, "Talde-fitxa" bete beharko dute (ikus Eranskina) eta eGela bidez entregatu beharko dute. "Talde-fitxa" eskuragarri dago eGelan, Word formatuan (.docx), datuak bete eta entrega errazteko. Ikasleei eskatzen zaie, identifikazioa errazte aldera, dokumentua taldearen izenarekin izendatzea eGelara igo aurretik (nahikoa da kide batek dokumentua entregatzea).

Talde-fitxa guztiak jaso ostean, **4. astean**, tutore bat esleituko da talde bakoitzari, tutoreak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena egin dezan. DILANa egitean sortzen diren zalantza guztiak esleitutako tutoreari kontsulta dakizkioke. Horregatik, ikasleei eskatzen zaie esleitutako tutorearekin harremanetan jartzea, beranduenez **5. astean**, DILANari buruzko lehen jarraibideak eta orientabideak jasotzeko. eGelan eta hurrengo estekan, III. Moduluko irakasleen tutoretzen ordutegia kontsulta daiteke: <https://labur.eus/uHtj>

Hala ere, DILANari aplikatu beharreko eduki teoriko-praktiko bati buruzko kontsulta espezifikoa bada, dagokion irakasgaiaren arduraren irakasleari galdetzea gomendatzen da, tutoretza ordutegian edo ikasgelan DILANari zuzendutako saioetan. Horregatik, DILANa egiten den bitartean, 2 orduko 3 saio egingo dira III. Moduluko irakasgai bakoitzean. Irakasgai bakoitzaren kronograma espezifikoa kontsultatzea gomendatzen da, DILANari erreserbatutako saioak ezagutzeko. III. Moduluko irakasgaien ordutegia helbide honetan kontsultatu daiteke <https://labur.eus/Tw7nm> eta ebaluazioaren egutegia <https://labur.eus/6PqNf> helbidean.

Ikasleren batek etengabeko ebaluazioari uko egin nahi badio, dagokion idatzia sinatuta entregatu beharko du (eta eskuragarri dagoena esteka honen beheko aldean: <https://labur.eus/6PqNf>) ikasturteko **8. astea** amaitu baino lehen (azaroko lehen astea). Ikasleek aukeratzen duten ebaluazio-sistema alde batera utzita (etengabekoa eta/edo amaierakoa), DILANa taldean egin ahal izango dute (eta, hala, gomendatuko zaie).



**9. asteko** ostiralean, talde bakoitzak DILANaren zirriborro bertsioa entregatu beharko du, Word formatuan (.docx), eGela bidez. DILANaren zirriborroa ezarritako epean ez aurkezteak 0,2 puntuko zigorra ekarriko du idatzizko lanaren azken kalifikazioan. Ikasleei eskatzen zaie, identifikazioa errazte aldera, dokumentua taldearen izenarekin izendatzea eGelara igo aurretik (nahikoa da kide batek dokumentua entregatzea).

**10. astean** esleitutako tutoreak zirriborroa berrikusiko du, DILANA behar bezala egituratzen ari den egiaztatzeko (*feedbacka*) eta hobekuntza orientabideak emateko (*feedforwarda*).

DILANaren azken bertsioa PDF formatuan entregatu beharko da eGela bidez, asko jota, **14. asteko** ostiralean. Ezarritako epean ez aurkezteak 0 puntu ekarriko du idatzizko lanaren azken kalifikazioan. Ikasleei eskatzen zaie, identifikazioa errazte aldera, dokumentua taldearen izenarekin izendatzea eGelara igo aurretik (nahikoa da kide batek dokumentua entregatzea).

**15. astean** ez da dozentziarik egongo, aste honetan DILANaren ahozko aurkezpena egingo da taldeka (talde bakoitzak 15 minutu izango ditu DILANA aurkezteko). eGelan, 4. astetik aurrera (tutorearen esleipenarekin batera), talde bakoitzaren aurkezpenaren eguna eta ordua kontsultatu ahal izango da.

Ez zaie puntuaziorik emango (0,5 puntu) justifikatu gabeko arrazoiren batengatik DILANA esleitutako egun eta orduan aurkezten ez duten taldeei (aldiz, arrazoia justifikatuta dagoenean eta aldeztu aurretik jakinarazita, egun/aste batzuk lehenago, aurkezpen eguna eta ordua aldatu ahal izango da); ezta DILANeko atalen bat aurkezten ez duten kideei ere, beren taldekideei bidezkoa izan dakien.

## 7. III. MODULUKO DILANAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

15. astean ikasleei ondorengo gogobetetze inkestan sartzea eta betetzea eskatuko zaie (eGelan ere eskuragarri dago), honen helburua III. Moduluko DILANa baloratzea eta hobetzea da: <https://labur.eus/CtcnC>

DILANak 1,5 puntuko balioa du guztira (puntu 1 idatzizko lanak eta 0,5 puntu ahozko aurkezpenak). Idatzizko lanaren balioa, lauhilekoan taldearen jarraipena egin duen tutoreak esleituko du; ahozko aurkezpenaren balioa, berriz, epaimahaikideen artean adostuko da. DILANaren azken balioa (0 eta 1,5 puntu artekoa) III. Moduluko irakasgai bakoitzaren amaierako kalifikazioaren %15 izango da.

Ikasleren bat hurrengo taulan deskribatutako kasuren batean badago, III. Moduluen DILANa egin zuelako edo ikasturte honetan egitea ez dagokiolako, matrikulatuta dituen III. Moduluko irakasgaien ardura duten irakasleekin harremanetan jartzea eskatzen zaio, III. Moduluko DILANaren balioaren %15 puntuazioaren ebaluazio-irizpide espezifikoak ezagutzeko.

Matrikulatutako III. Moduluko irakasgaien kopurua	III. Moduluko irakasgaien kopurua etengabeko ebaluazio-sisteman	III. Moduluko irakasgaien kopurua amaierako ebaluazio-sisteman	Une honetan, III. Moduluen DILANa egitea dagokit?
5	5	0	Bai
	4	1	Bai
	3	2	Bai
	2	3	Ez
	1	4	Ez
	0	5	Ez
4	4	0	Bai
	3	1	Bai
	2	2	Bai
	1	3	Ez
	0	4	Ez
3	3	0	Bai
	2	1	Bai
	1	2	Bai
	0	3	Ez
2	2	0	Ez
	1	1	Ez
	0	2	Ez
1	1	0	Ez
	0	1	Ez

DILANaren ebaluazio-irizpideak (EI) honako hauek dira:

- EI1. Hainbat diziplinako argudioak erabiltzea hezkuntza prozesuen azterketan.
- EI2. Hezkuntza prozesuen osagai didaktikoen, soziologikoen, psikologikoen, antolakuntzako eta orientazioko identifikazio maila.
- EI3. Txostenak diziplinarteko jarduerari buruz aurkezten duen gogoeta maila.
- EI4. Txostenak irizpide akademiko formaletara egokitzea.
- EI5. Talde barruko lankidetzeta eta lan autonomoaren maila.
- EI6. Komunikazio gaitasunaren maila (adibidez: diskurtsoaren antolamendu maila; estresaren kontrola; entzuleei egokitzea; espazioaren komunikazio erabilera; eta erabilitako baliabideen aniztasuna eta berrikuntza).

Lehen aipatutako ebaluazio-irizpideak baloratzeko, ondorengo errubrikan deskribatutako adierazleak (A) erabiliko dira:

IDATZIZKO LANA (puntu 1)				
A1	DILANa egin izana justifikatzeko sarrera atal bat dute.	Bai	Bai, baina...	Ez
A2	Filma hautatzearen arrazoiak azaltzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A3	Hautatutako filma testuinguruan kokatzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A4	Filman dauden hezkuntza prozesuak identifikatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A5	Identifikatutako hezkuntza prozesuak irakasgaien edukiekin erlazionatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A6	Irakasgaien edukiak elkarren artean erlazionatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A7	Filmaren azterketa xehatua egiten dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A8	Analisiaren ondorio nagusiak atera dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A9	Balioespen judizioak egiten dituzte, beren iritzia pertsonala justifikatuz eta barne hartuz	Bai	Bai, baina...	Ez
A10	Irtenbide posibleak, egokitzapenak, hobetu beharreko alderdiak edo esku-hartzeko alderdiak proposatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A11	Pedagogoaren eta gizarte hezitzailearen figura, rola edo eginkizuna azaltzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A12	Moduluaren Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) kontuan hartzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A13	DILANak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan dituen inplikazioak adierazten dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A14	Egileak aipatzen dituzte APA 7 estiloa erabiliz	Bai	Bai, baina...	Ez
A15	Erreferentzia bibliografikoak dituzte APA 7 estiloa erabiliz	Bai	Bai, baina...	Ez
A16	Ideiak modu egituratu, koherente eta argian azaltzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A17	Hizkuntza inklusiboa eta ez diskriminatzailea erabiltzen dute, akats ortografikorik eta gramatikalik gabe	Bai	Bai, baina...	Ez
A18	DILANa egiteko behar izandako denbora kudeatzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A19	Taldean lan egiten dute modu kohesionatuan	Bai	Bai, baina...	Ez
A20	Tutoreak egindako iradokizunak barne hartzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
AHOZKO AURKEZPENA (0,5 puntu)				
A21	Aurkezpen argia eta koherentea izan da	Bai	Bai, baina...	Ez
A22	Filmeko eta/edo DILANeko ideia nagusiak identifikatzen edo laburbiltzen jakin dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A23	Moduluaren irakasgaiekin ezarritako erlazioa ikusi da	Bai	Bai, baina...	Ez
A24	Azaldutako ideiei buruzko iritzia edo balorazioa ematen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A25	Pedagogoaren eta gizarte hezitzailearen figura, rola edo eginkizuna azaltzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A26	Irtenbide posibleak, egokitzapenak, hobetu beharreko alderdiak edo esku-hartzeko alderdiak proposatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A27	Taldeko kideen arteko koordinazioa dago	Bai	Bai, baina...	Ez
A28	Aurkezpenaren formatua eta dinamika egokitzen jakin dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A29	Aurkezpeneko ezarritako denborara mugatu dira.	Bai	Bai, baina...	Ez
A30	Jarrera positiboa eta errespetuzkoa erakutsi dute	Bai	Bai, baina...	Ez
*** Bai = 0,050 puntu; Bai, baina... = 0,025 puntu; Ez = 0,000 puntu				

III. Moduluko DILANaren gida honetan deskribatutako kompetentzia (K), ikas-emaitza (IE), ebaluazio-irizpide (EI) eta adierazle (A) guztiak honela erlazionatzen dira elkarren artean:

3M: DILAN	K1E	K2E	K3E	K4E	K5E	K6Z	K7Z	K8Z	IE1	IE2.1	IE2.2	IE3	IE4	IE5	IE6	IE7	K1.HO.1.2	K1.HO.2.1	K2.HO.1.1	K2.HO.1.5	K2.HO.2.1	K2.HO.3.3	KA.HO.1.1	KA.HO.2.1	EI1 - EI3 (A1 - A13)	EI4 (A14 - A17)	EI5 (A18 - A20)	EI6 (A21 - A30)		
K1E									X								X	X	X	X	X	X	X	X	X					
K2E										X	X						X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				
K3E											X						X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				
K4E												X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				
K5E														X			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				
K6Z															X															X
K7Z																X	X	X	X	X	X	X	X	X	X					
K8Z															X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X			
IE1	X																X	X	X	X	X	X	X	X	X					
IE2.1		X															X	X	X	X	X	X	X	X	X					
IE2.2			X														X	X	X	X	X	X	X	X	X					
IE3				X													X	X	X	X	X	X	X	X	X					
IE4					X												X	X	X	X	X	X	X	X	X					
IE5						X											X	X	X	X	X	X	X	X	X					
IE6							X										X	X	X	X	X	X	X	X	X				X	X
IE7								X	X								X	X	X	X	X	X	X	X	X		X		X	X
K1.HO.1.2	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
K1.HO.2.1	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
K2.HO.1.1	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
K2.HO.1.5		X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
K2.HO.2.1	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
K2.HO.3.3	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
KA.HO.1.1	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
KA.HO.2.1	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X									X					
EI1 - EI3 (A1 - A13)	X	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X						
EI4 (A14 - A17)							X									X														
EI5 (A18 - A20)								X							X	X														
EI6 (A21 - A30)						X									X															

## 6. ERANSKINA: III. MODULUKO DILANAREN TALDE-FITXA

Jarrian, III. Moduluko DILANaren talde-fitxaren eredua aurkezten da, ikasturteko 3. astean bete eta entregatu beharrekoa (entrega errazteko, eGelan ere eskuragarri dago):

III. MODULUKO DILANAREN TALDE-FITXA			
<b>TALDEAREN IZENA:</b>			
<b>1. KIDEA</b>		<b>2. KIDEA</b>	
<b>IZENA:</b>		<b>IZENA:</b>	
<b>ABIZENAK:</b>		<b>ABIZENAK:</b>	
<b>GRADUA:</b>		<b>GRADUA:</b>	
<b>MAILA:</b>		<b>MAILA:</b>	
<b>TALDEA:</b>		<b>TALDEA:</b>	
<b>E-MAILA:</b>		<b>E-MAILA:</b>	
<b>3. KIDEA</b>		<b>4. KIDEA</b>	
<b>IZENA:</b>		<b>IZENA:</b>	
<b>ABIZENAK:</b>		<b>ABIZENAK:</b>	
<b>GRADUA:</b>		<b>GRADUA:</b>	
<b>MAILA:</b>		<b>MAILA:</b>	
<b>TALDEA:</b>		<b>TALDEA:</b>	
<b>E-MAILA:</b>		<b>E-MAILA:</b>	
HAUTATUTAKO FILMA			
<b>IZENBURUA:</b>			
<b>HAUTAKETAREN ARRAZOIAK ETA III. MODULUKO IRAKASGAIEKIN DUEN LOTURA:</b>			